

1. Noiz zen Artho xuritzē hori eta nun?
2. Artho xuritzaleak nungoak ziren?
3. Piarresek zertako aldeginia ukan zuen - Bestalde, zertako xuritzaleak zinezko Eskualdunak?

Artho-Xuritzen

Urte berri bezpera zen. Gau bat ederra. Ohidura zaharrak begiratu beharrez, turrutari bat lagun harturik, herriko-mühila, athez-athe zabilan, bas-herrietan. Heien atabala-turrutak adi zitezken urrunera, gain hetako xakurrak oro asalduretari emaiten zituztela.

Lerro, lerro, bat bertzearen ondotik, hauzoak heldu ziren Oihanaldera. Inthari gora, bixi bixia ernatzen ziren, ezen elhurra hormat en oraino gain hetan guzietan, eta eskalapoinen azpian kurrusk kurrusk kraskatzen zitzaieten. Beharrik ez zuten urrun joaterik, Oihanaldeko Gaxuxak, egundainotik, lehen auzoak baizik ez zituelakotz nahi beren artho-xuritzetan. Sobera emazteki zuhurra zen gazte arin guzien exherat ekarrarazteko.

Sukaldean bildurik, xutik gizonak, jarririk emaztekiak, kafe xorta baten edaten ari ziren, barnearen berotzeko, lanari lotu aintzinean.

Eta orai, selauruan zoin bere tokian moldaturik, bideak, hormak eta edari beroak gorri gorria eginak, trenpurik¹ goxoenean hasiak ziren oro. Piarresek, hiru-hortzarekin artho andana bat jautsarazi zuen artho-xuritzale bakotxaren aintzinerari. Eta hirriz, berehala, guziak eman zitzaizkon erasian, baizik eta bertzeeri baino gutiago lan hedatu ziotela Goaña Lizartzakoari eta haren amari. Alegia samur egin zuen orduan Piarresek, bainan, bere bihotzaren zolan sumatu zuen atsegin egiazki zuela, Lizartzako andreak Goaña Oihanalderat gau hartan berekin ekarririk.

"reguko² bi saski handi han zituzten aintzinean, artho buru e...rak, hori edo gorri gorria, hetarat arthikitzeke. Eta, zinezko eskualdunak eta beraz oro guti aski pilotariak izaki, buru bakhar batzu doi doa ziren erortzen saski handietarik kanpo; burla eta hiririk aski baitzuen orduan hola herrebes izatu zenak.

Bihit baino korbutxa³ gehiago zuten artho-buru txarrak arthikiak ziren aldiz bertze saski batetara, behiek gero, neguan, lorietan janen baitzituzten.

Orhoitmen etako = (Ne) mintzen

- Ne (nau) Nintzaizun (à vous) = je vous étai
- Nintzaiyon (à lui) = je lui étai
- Nintzaiyuen (à vous) = je vous étai
- Nintzaiuen (à eux) = je leur étai

III ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. Athez-athe zabilan 32. Adizitezken
- 33. Zitzaioten 34. Zitzaiuzkon.

31. IBILI Indicatif.

Présent.	Imparfait
Ni nabilan (je marche)	nindabilan (je marchais)
Hi habila	hindabilan
Zu zabilza	zindabilzan
Hura dabila	zindabilan
Gu gabilza	gindabilzan
Zuek zabilzate	zindabilzaten
Hek dabilza etc.	zindabilzan etc.

32. IZAN. Potentiel. Imparfait.

Ni izan ninteken = je pouvais être
Hi -" - hinteken = tu pouvais être
Zu -" - zintezken = vous pouviez être
Hura -" - ziteken = il pouvait être
Gu -" - gintezken = nous pouvions être
Zuek -" - zintezketen = vous pouviez être
Hek -" - zitezken = ils pouvaient être

33. IZAN. Régime indirect. Indic. Imparfait

(Hura) Zen = il était.

Hura (lui) zitzaitan (à moi) = il m'était
zitzaiuzan (à vous) = il vous était
zitzaiyon (à lui) = il lui était
zitzaizun (à nous) = il nous était
zitzaiyuen (à vous) = il vous était
zitzaiuen (à eux) = il leur était